



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/11/07

## **Batzar Nagusiek ez dabe onartu Habidite kasua dala eta Jabyer Fernández Batzarretara etortetik**

Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordeak ez dau onartu gaur, EAJ-PNV, PSE-EE eta Talde Mistoaren botoakaz, Jabyer Fernández enpresarioa Bizkaiko Batzarretara etortea. Porrot egin eban Habidite proiektuaren arduradunaren presentziaren alde EH Bildu, Podemos Bizkaia eta Bizkaiko Talde Popularrak agertu dira. Holan, Bizkaiko Batzarrek atek ixten deutesiez, “zigortzeko moduko kaudimen bakotasun” delitua dala eta kartzelan dagon Fernándezek, etxe modularren kasuan Batzarretan azalpenak emoteko aukerari.

Podemos taldearen ekimena, Aldundiagaz daukan epaiketetako batean Epaitegi Gorena enpresarioaren alde agertu dala jakin eta aste gitxitara aurkeztu zan. Epaitegi Gorenak “Alonsotegin etxe modularren eraikuntzea bultzatzeko hitzarmena bere aldetik baliobakotu izana” aurpegiatzen eutsan Foru erakundeari. Hori dala eta, talde horren eretxiz, “ezinbestekoa” da Jabyer Fernándezek kasu horretan gertatutakoaren gaineko “bere ikuspuntua” emotea.

Antzeko zeozer esan dabe Batzarretako EH Bildu eta PP taldeek. Javier Ruiz Talde Popularreko bozeroalearen eretxiz, kasua epaibidean egoteak ez dau saihestu behar lurraldeko Batzarretan emon beharreko “bultzada politikoa” emotea, “Bizkaiko Foru Aldundiaren bertsinoa baino ez daukagulako”. Ruizen eretxiz “bidezkoa” da enpresarioa Batzarretara etortea, “mundu guztiak daukalako berari entzuteko eskubidea”. EH Bilduko Arantza Urkaregi bat etorri da popularragaz, beste bertsinoa be entzutea “garrantzitsua” dala esatean. Guzurtan egin dau enpresarioa Batzarretara etortek “epai bidea oztopatzen dauenik”.

Fernández Bizkaiko Batzarretara etortearen kontra Talde Mistoa, Euskal Sozialistak eta Euzko Abertzaleak taldea agertu dira. Arturo Aldecoak (Talde Mistoa), justiziari behar egiten ixteko eskatu dau. “Lehenago egin behar zan”. Fernández Bizkaiko Batzarretara etortea “oso ikusgarria izan daiteke, baina egia ezagutzeko balioko deusku? Ez dot uste” esan dau.

Foru Gobernua eusten daben talde biek –EAJ-PNV eta PSE-EE– Fernández batzorde batera etortea eta oraindino zabalik jarraitzen dauen epai bidezko prozesua “ez dirala une berean emon behar” ulertzen dabe. Ekain Rico sozialistak, José Luis Bilbao aurreko Ahalduen Nagusiaren kudeaketea kritikau ostean, Aldundiak, Epailearen agindua jarraituta, salatua, bere egunean “entzun egingo dala” iragarri ebalu gogorarazo dau.

Jon Andoni Atutxa bozeroale jeltzaleak, bere aldetik, esan dau Batzarretako bere taldeak ez dauela jarrerarik aldatu Fernández Batzarretara etorteari jagokonez. “2009ko garagarrilean” be horren kontra agertu ziran, Batzarretako beste talde batek egindako eskariaren ostean. “Epaiketek zabalik”, eta Fernández “Bizkaiko ogasunaren zordun nagusia izaten” jarraitzen daben bitartean, Euzko Abertzaleak taldea “ez da agerraldi eskariaren alde agertuko”.

FINANTZEN EUSKAL KONTSEJUA



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Saio berean, Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldun Nagusia, berak eta Podemos Bizkaia taldeak eskatuta etorri da batzordera, 2017ko urriaren 11n egin zan Finantza Publikoen Euskal Kontsejuaren bileraren barri emoteko. Bilera horretan hainbat gai “aho batez” onetsi ziran: 2018an Ekarpunen Lege barria onesteko konpromisoa; 2007-2015 epealdiko kupoen likidazioak; eta 2017. eta 2018. urteetarako tributu kontzertatuengaitiko diru-bilketarako aurreikuspenak. Kalkuluak beteten badira, 2017an diru-bilketea “%6,4” handituko da Bizkaian (Batzorde Mistoak Kupoaren gainean hartu dituan akordioak kontuan izanda, ehuneko hori %10,9koa izango litzateke), eta “%3,9koa” 2018an. Datorren urtean, Euskadiko Autonomia Erkidego osoan, “14.391,26 milioi euroko” diru-bilketara heltzea aurreikusten da.

Rementeriak gogorarazo dauenez, bilera horretan hiru aldundiek 2018. urtean Eusko Jaurlaritzara egingo dituen ekarpenak be onetsi ziran, 9.523 milioi euro, hain zuzen be. “%50,37” –2017an baino ia 3 hamarren gitxiago– Bizkaiko Ogasunak ordainduko dau, adostu dan koefizientea dala eta. Datorren ekitaldian koefiziente hori aldatu ahal izango da, Ekarpunen Legea martxan jarten danean. Rementeriak adierazo dauenez, Bizkaiairen interesak defendiduko ditu, eta koefiziente hori aldatzeko “datu objektiboak” egotea “exigiduko” dau.

Horrez gain, saio haretan, Euskadiko administrazioek, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Fondoari 2018an barriro be 20 milioi euro emotea onetsi eben. Eusko Jaurlaritzak 14 milioi jarriko ditu, eta Foru Aldundiek gainerako 6ak. Bizkaiko lurraldeak 10 milioi jasoko ditu. Horreetatik, bost udalek kudeatuko ditue, eta beste bostak Aldundiak berak.

#### “113.966 BIZKAITAR” GUGGENHEIMEN

Beste alde batetik, Bizkaiko Talde Popularrak, Guggenheim museoaren hogeigarren urteurrena dala eta bizkaitarrei bialdutako konbitea Ahaldun Nagusiaren izenean bialdu izanaren zergaitiengaitik itaunduz egindako erantzun-eskeari erantzunez, Rementeria bisita kopuruaren behin betiko balantzea eskiniz defendidu da. “113.966 bizkaitarrek” kurutzatu ebezan Bilboko museoaren atea urriaren 1etik azaroaren 5era, Aldundiak etxebizitza guztietara bialdu eban konbiteagaz. Epealdi horretako sarrera guztien “%43” izan ziran.

“Lortu gura zana arrakasta osoz” bete da, esan dau Rementeriak pozik, eta gaur egun “Bizkaia Guggenheim museotik gertuago dagola” azpimarratu dau. Hilebete bat baino apur bat gehiagotan, nabarmen gainditu da urtebete osoan bizkaitarrek egiten daben bisita kopurua, “70.000 eta 90.000 pertsona artekoa izaten da eta”. Ahaldun Nagusia “pozik” eta “harro” agertu da, Aldundiak, aurton 20 urte bete dituan museoa ezagutzeko aukerea “horrenbeste jenteri” emon izanagaitik. Herritarrei “emon be egin behar jake, ez zergak ordainarazo bakarrik”.

Javier Ruiz PP taldeko bozeroaleak txalotu egin dau Aldunditik martxan jarritako ekimena, baina Aldundiaren kutxan eragindako “larregizko” gastua kritikau dau: “346.000 euro”. Bere eretxiz, “merkeago” egin eitekean, bide telematikoa erabilia, katastroaren jakinarazpenak egin zan moduan, edo museoko bertako txarteldegietan bulego bat jarrita, etxebizitza bakotxera gutunak bialdu beharrean.

Bere esanetan, konbite kanpaina Ahaldun Nagusiaren beraren “sustapen pertsonalera” kanpaina bilakatu da, “bizkaitar guztiona dan ikono kultural bat bere mesederako erabili dauelako”. Museoaren XX. urteurrena zanez, Juan Ignacio Vidarte zuzendariari jagokon konbitea sinatzea edo, izatekotan be, Urkullu Lehendakariari, bera dalako Patronatuko



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

presidentea. Rementeriak esan dau ekimena Aldunditik sortu zala, eta bera dala erakunde horretako arduradun nagusia.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
07/11/2017

## **Las Juntas Generales rechazan la comparecencia de Jabyer Fernández por el caso Habidite**

Las Juntas Generales de Bizkaia han rechazado hoy, en la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia, con los votos en contra de PNV, PSE-EE y grupo Mixto, que el empresario Jabyer Fernández acuda a la Cámara vizcaína. A favor de la presencia del responsable del proyecto fallido de Habidite se han posicionado EH Bildu, Podemos Bizkaia y el grupo Popular Vizcaíno. El Parlamento vizcaíno cierra así la posibilidad a que Fernández, que cumple condena en prisión por un delito de “insolvencia punible”, ofrezca explicaciones en sede parlamentaria en relación al caso de las casas modulares.

La iniciativa de Podemos se presentó semanas después de conocerse que el Tribunal Supremo fallaba a favor del empresario en una de los pleitos que mantiene con la Diputación. El Tribunal Supremo reprochaba a la institución foral “haber anulado unilateralmente el pacto para promover la construcción de casas modulares en Alonsotegi”. Por eso, desde esta formación han creído “imprescindible” que Jabyer Fernández ofreciera “su punto de vista” sobre lo acontecido en este caso.

En la misma línea se han mostrado los grupos junteros de EH Bildu y PP. Para el portavoz del grupo Popular, Javier Ruiz, la judicialización del caso no impide que se desarrolle en la Cámara territorial el debido “impulso político”, ya que “solo disponemos de la versión de la Diputación Foral de Bizkaia”. Ruiz ha creído “pertinente” la presencia en Juntas del empresario puesto que “todo el mundo tiene derecho a que se le escuche”. Arantza Urkaregi, de EH Bildu, ha coincidido con el popular en que es “importante” también escuchar la otra versión. Ha negado que la comparecencia del empresario en Juntas “obstaculice la vía judicial”.

En el lado opuesto a la presencia de Fernández en el parlamento vizcaíno se han situado los grupos Mixto, Socialistas Vascos y Nacionalistas Vascos. Arturo Aldecoa (Mixto) ha pedido que se deje trabajar a la justicia. “Habría que haberlo hecho antes”. La presencia de Fernández en la Cámara “puede ser muy espectacular, pero ¿sabríamos la verdad? Yo lo dudo”, ha dicho.

Las dos formaciones que sustentan al Gobierno foral –PNV y PSE-EE- han entendido que “no debe simultanearse” la presencia de Fernández en una comisión con el proceso judicial que aún continúa abierto. El socialista Ekain Rico, después de criticar la gestión del anterior diputado general, José Luis Bilbao, ha recordado que la Diputación, siguiendo el mandato judicial, ya anunció en verano que le “dará audiencia” al acusado.

El portavoz jeltzale, Jon Andoni Atutxa, ha señalado que su grupo juntero no ha variado su postura en relación a la presencia de Fernández en sede parlamentaria, algo a lo que se negaron también “en julio de 2009” tras la petición de otro grupo juntero. “Mientras que los juicios sigan abiertos” y Fernández “siga siendo el mayor deudor de la hacienda vizcaína”, el grupo Nacionalistas Vascos “no apoyará una solicitud de comparecencia”.

CONSEJO VASCO DE FINANZAS



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

En la misma sesión, el diputado general de Bizkaia, Unai Rementeria, ha comparecido a iniciativa propia y de Podemos Bizkaia para dar cuenta de la última reunión del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, celebrada el 11 de octubre de 2017, en la que se acordaron “por unanimidad” asuntos tales como el compromiso de aprobar en 2018 la nueva Ley de Aportaciones; las liquidaciones de los cupos en el periodo 2007-2015; y las previsiones de recaudación por tributos concertados para 2017 y 2018. El crecimiento de la recaudación será en Bizkaia, según los cálculos, del “6,4%” en 2017 (incluyendo los acuerdos de la Comisión Mixta sobre el Cupo este porcentaje alcanzaría el 10,9%), y del “3,9%” en 2018. El año que viene, en el conjunto de la Comunidad Autónoma Vasca, se prevé alcanzar una recaudación de “14.391,26 millones de euros”.

Según ha recordado Rementeria, en la reunión se aprobaron también las aportaciones que las tres diputaciones realizarán al Gobierno vasco para el ejercicio 2018, que serán de 9.523 millones de euros. Un “50,37% - casi 3 décimas menos que en 2017- lo aportará la Hacienda vizcaína, según el coeficiente pactado, que podría ser modificado el próximo curso cuando se aborde la Ley de Aportaciones. Rementeria ha asegurado que defenderá los intereses de Bizkaia y “exigirá” que haya “datos objetivos” para modificar este coeficiente.

Asimismo, en aquella sesión las administraciones vascas acordaron volver a dotar al Fondo Interinstitucional de Servicios Sociales en 2018, con 20 millones de euros. El Gobierno Vasco aportará 14 y las Diputaciones Forales los 6 restantes. El territorio vizcaíno recibirá 10 millones. De ellos, cinco serán gestionados por los ayuntamientos y los otros cinco por la propia Diputación.

#### “113.966 VIZCAÍNOS Y VIZCAÍNAS” EN EL GUGGENHEIM

Por otro lado, en respuesta a una pregunta oral del grupo Popular Vizcaíno que le ha interpelado para conocer los motivos de que fuese él mismo quien firmara la invitación enviada a los vizcaínos para visitar el museo Guggenheim con motivo de su veinte aniversario, Rementeria se ha defendido ofreciendo un balance definitivo del número de visitas. “113.966 vizcaínos y vizcaínas” traspasaron las puertas del museo bilbaíno entre el 1 de octubre y el 5 de noviembre con la invitación que envió la Diputación a los domicilios, lo que representó el “43%” de las entradas totales en ese periodo.

La “misión” ha sido cumplida “con éxito” se ha congratulado Rementeria, quien ha insistido en que hoy “Bizkaia está más unida al museo Guggenheim”. En poco más de un mes, se ha superado de largo la presencia de vizcaínos y vizcaínas en un año completo cuando se suelen acercar “entre 70.000 y 90.000 personas” domiciliadas en el territorio. El diputado general se ha mostrado “feliz” y “orgulloso” de que la Diputación haya dado la oportunidad “a tanta gente” para conocer un museo que este año ha cumplido 20 años. A los ciudadanos “hay que darles también, no sólo cobrarles impuestos”.

El portavoz del PP, Javier Ruiz, ha aplaudido la iniciativa puesta en marcha desde la Diputación, pero ha criticado el “excesivo” gasto que supuso para las arcas forales: “346.000 euros”. Cree que se podía haber hecho de una manera “más económica”, por vía telemática como se hizo con las notificaciones del catastro o instalando una oficina en las taquillas del propio museo, en vez del envío de una carta domiciliada.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

A su juicio, la campaña de invitación se ha convertido en una “promoción personal” del propio diputado general que “ha utilizado un icono cultural que pertenece a todos los vizcaínos”. Al ser el XX aniversario del Museo, le correspondía a su director, Juan Ignacio Vidarte, firmar la invitación, o, en su caso, al Lehendakari Urkullu, como presidente del Patronato. Rementeria se ha excusado en que la iniciativa partió de la Diputación y él es el máximo responsable.